



ESKOLA KIROLA: GURE BALIO ETA OINARRIAK

Eskola-kirola jarduera hezitzaile gisa ulertzen dugu, gure seme-alaben hezkuntzaren osagai eta osagarri gisa.

Ondoko balio hauetan oinarrituta eraiki nahi dugu eskola-kirolaren programa eta lan egingo dugu hezkuntza komunitatearekin, gurasoekin, udalarekin eta kirol klubekin balio horiek partekatu eta sustatzeko.

- Kirolak ezagutu: gure seme-alabek askotariko jarduera fisiko eta kirol jarduerak probatu eta ezagutzea nahi dugu, orain eta etorkizunean kirola eta jarduera fisikoa beren bizimoduko osagai izan daitezzen.
- Kirolean gozatu: gure seme-alabek kirola eta jarduera fisikoa eginez gozatzea nahi dugu, lehiaitsu eta puntuazioetatik haratago.
- Lehiakortasun zintzoa: lehiakortasun zintzoa sustatu nahi dugu, puntuazio eta sailkapenak lehenetsiko ez dituenak.
- Harreman onak: Adiskidetasuna, berdintasuna, elkarlana, eskuzabaltasuna eta beste ikastetxeekin harreman ona bultzatu nahi dugu.
- Errespetua: Errespetuz jokatzeko nahi dugu arbitroekin, kideekin, begiraleekin, gurasoekin...
- Talde lana: kirol jardueretan talde lana eta elkarlana sustatuko ditugu, bakoitzaren doai eta trebetasunen gainetik taldea eta taldekide izatea indartzeko.
- Ardura, konpromisoa eta arauak: Taldeko arauak arduraz betetzea sustatuko dugu (asistentzia, puntualtasuna, materiala eta instalazioak zaintzea, higieena...).
- Ikaste-irakaste prozesuan, autoestima, motibazioa eta berdinen arteko ikasketa ere landu nahi ditugu.
- Euskaraz bizi: eskola-kirola euskaraz da, euskaraz bizitzeko eta gozagarri izateko. Euskara maitatu.
- Inklusiboa: Guztiontzat den kalitatezko eskola kirola bat aurrera eraman nahi da, bazterketarik egiten ez duena. Ikasle guztiak beharrezkoak dira, bakoitzaren desberdintasunak irakaskuntza prozesua aberasten dutelako.
- Parekidea: Sexuaren araberako estereotipoak eta rola alboratuta pertsonen garapen integralean oinarrituko gara.